

gauetan, euriak orri artean murmur dagianean, zuk oetik entzungo dozu nire intziria, bai ta nire irribarreak tximistakin dirdir egin be zure leio edegian.

Zeure semea gogotan dozula, gau ordu luzeak lokartu barik emoten ba'dozuz, an izarretatik eresi joko dautzut nik: "Lo, ama, lo". Itargiaren izpian etorriko naiatzu : zure oera joan ixil-ixillik, eta, zu lo zagozala bular ondoan etzungo naiatzu. Gero ames biurtu ta zure betazal bitartetatik zear zeure atsedenezko ondarreraiño murgilduko naz, eta zuk izuturik itxartu ta albora begiratzean, illuntasunera iges egingo mitxelata antzo dardar-ikara leunez.

Puja'ren jai andian, auzokoaren umeak jolas-tu naita etxera etorriko yakuzanean, txirularen zarata oskidetsuan urturik ixuriko naiatzu ta egun. osoz zure biotzean intzirika jardun. Izekoak, esku-erakutsiak ekarriko ditu azokatik, eta itandu: "Eta umea, aizta, nun dozu ?" Ama, ta zuk esango dautsazu, gozo-gozo: "Neure begi-ninietan dago, neure gorputzean dago, neure ariman dago".

DEIEZ

Neskatxa joan zanean gau illun zan, eta lotan egozan danak. Orain be gau illun, ta dei dagitsot: "Itzul zaite, alaba, ene maitasun. Mundua lo dago

ta iñok be ez dau jakingo, unetxo baten, izarrak alkarri begira egozala, zu etorri ziñanik".

Zugatzak loraz jaztean joan zan, udabarria be oraindik neskatil zala. Lorak osoan zabaldu dira arrezkero, ta nik dei dagitsot: "Itzul, ene alaba. Aurrak loraketan dabiltz, eta zoratzeraiñoan jolas egiten dabe, areik bota ta bota. Zu loratxo baten billa etorri ba'zatoz be, nok batxo orren utsunea igarriko ?

Bizia bai ondatzaille ! Orduan jolasten ziranak, gaur be orrela diardue. Neuk dantzut arein soiñu ta bane algara, eta deiez naukazu: "Itzul, ene alaba. Maitasunez gaiñezka dago zure amaren biotza, eta etorri ba'zentorkez, mosutxo batgaitik ez zaitu iñok begitan artuko".

34

LENENGO JAZMIÑAK

Jazmin oneik, jazmin zuri oneik !... Lenengo aldiz dirudi bete yatazala eskuak jazmiñakaz, jazmin zuri oneikaz.

Maite izan ditut gaiñera eguzkiaren argia, zerrua ta lur muskerra. Ibaiaren leiar marmalaria entzun dot gau-erdiaren illunean. Bakartadeko bide-oker-unean, udazkeneko eguzki-sartzeak bidera urten daust, emaztegei batek baietz esateko bere buru-zapia edegiko ba'leust lez...